



LEGEZKOTASUN TXOSTENA, HONAKO AGINDU PROIEKTU HONI
BURUZKOA: AGINDUA HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREKIN
LAUGARRENEZ ALDATZEN BAITA HONAKO AGINDU HAU: EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO
IKASTETXEETAN –FONDO PUBLIKOekin ORDAINDUTAKOETAN–
IKASTURTE BAKOITZEKO ESKOLA-EGUTEGIA EGITEKO OINARRIZKO
ARAUTEGIA ZEHAZTEN DUENA.

10/2025 LT - LGAKZ
DNCG_ORD_3695/24_07

I. AURREKARIAK

Hezkuntza saileko aholkularitza juridikoak goiburuan aipatutako agindu proiektuari buruzko nahitaezko Legezketasun-txosten eskaera egin du Tramitagune tresna informatikoaren bidez. Agindu proiektuaren testuaren zirriborroaz gain, txosten eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau helarazi du:

- Aldez aurreko kontsulta publikoari buruzko memoria.
- Aldez aurreko kontsulta publikoari buruzko agindua.
- Agindua, Hezkuntza sailburuarena; honen bidez, hasiera ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan — fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarritzko arautegia zehazten duen agindua laugarrenez aldatzen duen Agindu-proiektua egiteko prozedurari.
- Xedapen orokorra egiteko prozeduran arauen eraginaren azterketaren memoria.
- Agindua, Hezkuntzako sailburuarena; honen bidez, aldez aurreko onespina ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



kanpoko ikastetxeetan —fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia zehazten duen agindua laugarrenez aldatzen duen Agindu-proiektuari.

- Xedapen honek haur, nerabe eta gazteengan duen eraginari buruzko txostena.
- Generoaren araberako eraginaren txostena.
- Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena.
- Emakunderen txostena, genero eraginari buruzkoa
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzaren txostena.
- Saileko aholkularitza juridikoaren txostena .
- Herritarrak hartzeko eta zerbitzu digitaletako zuzendaritzaren txostena.
- Euskadiko Eskola Kontseiluko 24/06 eta 24/06 bis irizpenak.
- Herri administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzaren txostena.
- Hezkuntza saileko langileak Kudeatzeko zuzendaritzaren txostena.
- Hezkuntza saileko Plangintza batzorde teknikoaren ziurtagiria.
- Memoria osagarria Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena.
- Hezkuntzako mahai sektorialeko idazkariaren ziurtagiria.

II.- LEGEZKOTASUN TXOSTENAREN BEHAR IZANAREN INGURUKO HAUSNARKETA.

Jaurlaritzako Zerbitzu Juriko Zentralari dagokio, Lege Garapenerako eta Arau Kontrolerako zuzendaritzaren bidez, xedapen orokorren proiektuak, erregelamenduz zehaztuko diren kasuetan eta betiere irizpena egitea

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagokionean, xedapen proiektuari buruzko, Legezkotasun txosten ematea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legean ezarritako 5.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat. Eta lege hori garatzen duen irailaren 25eko 144/2017 dekretuak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarenak, 12 artikuluan, honako hau ezartzen du:

Kontsultarako eskaera zehatzik egiten ez bada, sailaren txosten juridikoa baino ez dute behar izango eta legezkotasun-txostenetik salbuetsi ahal izango dira gai hauei buruzko proiektuak edo proposamenak:

- a) Erakunde, organo eta kudeaketa-erakundeetako karguak eta kideak izendatzea eta kargutik kentzea, pertsonifikazio publikoko zein pribatuko erakundeak izan.*
- b) Enplegu publikoaren eskaintzak eta lanpostuen zerrendak formalizatzea edo onartzea, arauzko xedapen orokorrik ez badute.*
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko lan-egutegia onartzea.*
- d) Ikastetxe publikoak edo pribatuak sortzea, kentzea, irekitzea eta euren funtzionamendua ezartzea, baita unibertsitate-fakultateak eta -eskolak sortzea eta kentzea ere.*
- e) Tituluak lortzera bideratutako irakaskuntzen ezarpena baimentzea.*
- f) Grebetarako gutxieneko zerbitzuak ezartzea.*
- g) Prezio publikoak ezartzea.*
- h) Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginak gobernuari esleitzen dizkion erabakiak eta baimenak formalizatzea.*
- i) Eduki arauemailea duten eta Eusko Jaurlaritzak onartutako indarreko dekretu baten garapenean edo aplikazioan ematen diren agindu-proiektuak.*
- j) Laguntzak edo diru-laguntzak baino arautzen ez dituzten agindu-proiektuak.*

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako postuak hornitzeko hautaketa-prozesuetarako eta lehiaketetarako deialdiak onartzen dituzten agindu-proiektuak.

Era berean, gure ustez, kasu honetan ez da nahitaezkoa Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena; izan ere, ezin da esan aldaketa-proiektuak, araubide bereziko kirol-irakaskuntzetarako egutegi alternatibo bat finkatzeko aukerari dagokionez, araubide bereziko kirol-entseguetarako antolamendu orokorrari buruzko Estatuko araudia garatzen duenik, ordenamendu juridikoa ez baitu aldatu nahi, iraunkortasunerako asmoarekin.

Horri dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak dioenez, Aholku Batzorde Juridikoari kontsulta egin behar zaio Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren legeak garatzeko edo betearazteko ematen dituen erregelamendu-xedapenen proiektuei dagokienez (3.1.c artikulua). Hala ere, kontsultarako organo goren horri kontsulta egin behar zaio, baldin eta Estatuko legeria garatzeko eskumen autonomikoak erabiltzen badira (9/2004 Legearen 3.1.d artikulua); baina ez, ordea, eskumen horiek betearazi edo bete besterik egiten ez bada, orain bezala, orain ere garatu gabe.

Bere aldetik, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko 6/2022 legeak ekainaren 30ekoak, 22 artikuluan, atzera Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legeari egiten dio erreferentzia, Zuzendaritza honen Legezketasun Txostenaren behar izanaren inguruan. Hau honela, saileko aholkularitza juridikoak egindako txostenean, honako hau dio:

En el mismo sentido, el art. 12.i) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco:

“Requieren únicamente informe jurídico departamental y podrán quedar exentos de la emisión de informe de legalidad, salvo que se curse una petición específica de consulta, los proyectos o propuestas relativos a los siguientes asuntos: (...) Proyectos de

Orden que contengan disposiciones con contenido normativo y que sean dictados en desarrollo o aplicación de un Decreto ya en vigor aprobado por el Gobierno Vasco.”

Ahora bien, este informe, como se razonará posteriormente, entiende que el contenido normativo proyectado no se encuentra en este supuesto, de manera que el contenido normativo proyectado requiere su aprobación por el Consejo de Gobierno mediante decreto, previo informe de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, o subsidiariamente informe de legalidad.”

Honi jarraiki esan dezakegu, sailaren txostenaren arabera, aztertzen ari garen Aginduak, ez duela legezko gaikuntzarik berariaz eta agindu bidez arautzen duena arautzeko, eta, beraz, Eusko jaurlaritzaren dekretu bidez onartu beharko litzakeela, eta kontuan izanda Lege Orokor baten zuzeneko garapena egiten ari dela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari dagokiola Irizpena ematea. Tramitatzaileak aldiz memorian ezarritakoaren arabera eta saileko aholkularitza juridikoaren txostena interpretatuz, Zuzendaritza honi eskatu dio legezkontasun txostena egitea.

Hau honela, eta naiz eta uste dudana Legezkontasun Txosten hau ez dela nahitaezkoa, ondoren aipatuko ditudan arrazoiengatik, 144/2017 dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat txosten hau ematea dagokio Jaurlaritzako zerbitzu juridiko nagusiari.

III.- PROIEKTUAREN IZAERA ETA ESKUMEN GAIKUNTZA

Saileko aholkularitza juridikoaren txostenak berariaz aztertzen du eta modu sakonean, Hezkuntza Sailburuaren eskumena eta legezko gaikuntza erregelamendu arau hau emateko, honela dio txosten honek:

“En la parte expositiva de la orden primigenia se aludía a su carácter de desarrollo normativo del entonces decreto regulador del currículo de la Educación Básica en la CAPV, a pesar de que su contenido se extendía a otras enseñanzas como las deportivas, de régimen especial, que aquí nos ocupan.

Estableciendo un paralelismo, el presente proyecto, como hemos adelantado, tiene por objeto, o mejor dicho, debería tenerlo en busca de su propia lógica normativa, el desarrollo reglamentario de los diferentes decretos que establecen y regulan en la CAPV el currículo de las distintas especialidades de enseñanzas deportivas de régimen especial, esto es:

- Decreto 129/2004 de 29 de junio, por el que se establecen los currículos correspondientes a los títulos de Técnico Deportivo y de Técnico

- Deportivo Superior, de las especialidades de fútbol y fútbol sala.

- Decreto 171/2010 de 29 de junio, por el que se establecen el currículo correspondiente a los títulos de Técnico Deportivo y de Técnico Deportivo Superior en balonmano y se regulan las pruebas y requisitos de acceso correspondientes.

- Decreto 172/2010 de 29 de junio, por el que se establece el currículo correspondiente a las enseñanzas de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior en las especialidades de los deportes de invierno y se regulan las pruebas y requisitos de acceso correspondientes.

Decretos que, no obstante, no se citan ni en el propio texto proyectado en la orden (se habla en la parte expositiva de la LOE y del Real Decreto 1363/2007) ni a lo largo del expediente. La paradoja es evidente.

Recordemos, por otra parte, que no son exclusivamente tales decretos los que regulan las enseñanzas impartidas en Kirolene, puesto que en tal centro se imparten más especialidades cuyo currículo no se ha desarrollado en la CAPV, contando únicamente con legislación básica estatal (sus correspondientes reales decretos). No obstante lo cual el proyecto de orden que aquí informamos no distingue por especialidades deportivas, resultando de aplicación a todas las que se impartirán en la CAPV.

Recordemos, en este sentido, que el Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye la competencia propia sobre la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades a la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y Leyes Orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30.ª de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

El esquema competencial, tal y como dispone el art. 6 de la LOE, señala que la administración estatal fija “en relación con los objetivos, competencias, contenidos y criterios de evaluación, los aspectos básicos del currículo, que constituyen las enseñanzas mínimas” y que suponen el 50 por ciento de los horarios escolares para la CAPV, mientras que nuestra Administración educativa establecerá el currículo de las distintas enseñanzas reguladas en la LOE, del que formarán parte los citados aspectos básicos.

Referido exclusivamente a las enseñanzas deportivas de régimen especial, (art. 64.5 LOE), “el Gobierno, previa consulta a las Comunidades Autónomas, establecerá las titulaciones correspondientes a los estudios de enseñanzas deportivas, los aspectos básicos del currículo de cada una de ellas y los requisitos mínimos de los centros en los que podrán impartirse las enseñanzas respectivas”.

Es el Real Decreto 1363/2007, de 24 de octubre, el que se establece la ordenación general de las enseñanzas deportivas de régimen especial. En relación al calendario escolar, dicha norma prevé:

“Disposición adicional undécima. Calendario escolar. Las administraciones competentes podrán ajustar el calendario escolar, teniendo en cuenta las peculiaridades de las enseñanzas deportivas y que las enseñanzas de algunas modalidades o especialidades deportivas, por el ámbito en que se desarrollan, están sujetas a condiciones de temporalidad.”

Posteriormente, la LOE fue modificada en su artículo 120.4, señalando actualmente lo siguiente:

“Los centros, en el ejercicio de su autonomía, pueden adoptar experimentaciones, innovaciones pedagógicas, programas educativos, planes de trabajo, formas de organización, normas de convivencia o ampliación del calendario escolar o del horario lectivo de ámbitos, áreas o materias, en los términos que establezcan las Administraciones educativas y dentro de las posibilidades que permita la normativa aplicable, incluida la laboral, sin que, en ningún caso, suponga discriminación de ningún tipo, ni se impongan aportaciones a las familias ni exigencias para las Administraciones educativas”.

Siguiendo lo anterior, la orden proyectada viene a modificar la actual conformación del calendario escolar en las enseñanzas deportivas, estableciendo, por una parte, la posibilidad de variar los límites generales de inicio y final de curso, y por otra, habilitando

todos los días de la semana como susceptibles de impartición de docencia en estas enseñanzas.”

Txosten juridiko honek esandakoarekin oro har bat etorri arren, uste dut txostenaren xede den aginduak araututakoa ez dela berariaz ikasketa curriculumaren inguruko arauketa, baizik eta ikastetxeen antolaketaren inguruko egintza administratibo orokor soil. Nolanahi ere, aldezturik agindu bidez arautu dira Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko mailetako ikastetxeen eskola-egutegia egiteko oinarritzko arauak, funts publikoekin sostengatuta daudenak, eta ez dekretu bidez saileko txostenak aholkatzen duen moduan. Gai hau behar bezala ulertzeko lehenik eta behin curriculumaren garatzea den edo ez aztertu behar da, eta honela definitzen da Curriculumabenduaren 21eko 17/2023 Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legean, 10. artikuluan:

10. artikulua.– Curriculumab eta oinarritzko konpetentziak.

1.– Curriculumab da lege honetan araututako irakaskuntza bakoitzaren helburuen, konpetentzien, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa.

2.– Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesu hori ikasleen oinarritzko konpetentzien garapeneren ikuspegitik diseinatu behar da, konpetentzia horiek irakaskuntza eta hezkuntza-etapa bakoitzaren berezko edukiak modu integratuan aplikatzeko gaitasuna direla ulertuta, helburua izanik jarduerak behar bezala egitea eta egoera edo erronka konplexuak eraginkortasunez ebatzea.

3.– Curriculum-edukiak bideratuta egongo dira hezkuntzaren helburuak lortzera, eta ikasleek bizitzako eremu eta egoera pertsonal zein sozialetan, akademiko nahiz lanekoetan, moldatzen jakiteko behar dituzten oinarritzko konpetentziak eskuratzera ere.

4.– Ikasketa bakoitzaren curriculumab Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez zehaztuko da indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

...

Curriculumabak beraz, antolaketa arauetako baino irakaskuntza arlo bakoitzari dagozkien edukiarekin, helburuekin eta pedagogiarekin du erlazioa, eta ez berau antolatzeko arauarekin. Ulertzen dugu aztertzen ari garen aginduak ez duela inolako zerikusirik kirol ikasketa hauek izan behar duten eduki, pedagogia edo helburuekin. Ordea, antolaketa irizpide berezi bat aurreikusten du soilik, zenbait kirolek dituzten berezitasunei erantzunez eskola egutegia zabaltzeko, eta saileko txostenak esaten duen moduan, hezkuntzaren Lege Organikoak eta

urriaren 24ko 1363/2007, Errege Dekretuak aurreikusten dute ikastetxeek auren autonomiaren arabera, hezkuntza administrazioaren baimenarekin egutegian ere aldaketak egiteko aukera. Ondoren jorratuko dugun moduan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legeak ere aurreikusten du ikastetxeen autonomia, beraz nire iritziz ez litzateke benetan xedapen orokor baten beharrik izango zenbait ikastetxeetan egutegia zabaldu ahal izateko, eta ondorioz bai asteburuetan bai eta uztaila edo abuztuan zenbait ikasgai eman ahal izateko, horregatik ere uste dugu txosten hau ez zela beharrezkoa. Hala ere, ideia honi jarraituta koherentzia arazo bat topatzen dugu, arauen hierarkia irizpidearekin talka egiten duelako gure ideiak, hauxe bera da saileko txosten juridikoak aipatzen duen sententzian aipatzen dena, hau da ebazpen bidez ezin dela agindu orokor batean ezarritakoaren aurka jo.

Aztertzen ari garen agindu honek laugarren aldiz, 2008ko martxoaren 10eko Hezkuntza eta Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindua aldatzera dator, eta hasierako agindu honek honela zioen:

“Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, beren eskola-jarduerak planifikatu eta

antolatzen dituzte. Urte barruan eskola-jarduera horiek burutzeko, beharrezkoa da ikasturte bakoitzerako eskola-egutegia finkatzea.

2006ko maiatzaren 10eko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, eskola-egutegi horiek egin eta onesteko kontutan hartu behar diren oinarritzko arauak zehaztu ditu, edonola ere ikastetxeen autonomia errespetatuz, beharrezkoa den antolakuntza- eta pedagogi-koherentzia bateragarria bermatzeko.

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera, eskola-egutegiak derrigorrezko eskoletarako 175 eskola-egun izango ditu gutxienez.

Beste alde batetik, urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Oinarritzko Heziketaren curriculumak ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak dio eskola- egutegiak gutxienez 175 eskola-egun izango dituela.

Aipatutako araudiak betetzeko beharrezkoa da 2006ko maiatzaren 10eko Agindua ordezkatzeko duen Agindu bat ateratzea.

Halaber, beharrezkoa da Agindu berriaren testuan arte-, hizkuntza- eta kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen eskola-egutegia egiteko oinarritzko arauak gehitzea, baita egutegia egin, onetsi eta aldatzeari dagokion araudia eguneratzea ere.”

Bere aldetik 2006ko maiatzaren 10eko aginduak honela zioen idatz aurrean:

“Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, haien irakaslanak planifikatzen eta antolatzen dituzte. Urte barruan irakaslan horiek

burutzeko, beharrezkoa da ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia finkatzea.

Eskola-egutegi hauek burutu eta onartzeko kontuan hartu behar diren oinarritzko arauak zehazteko eskuduntza dauka Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeen autonomia errespetatuz, beharrezkoa den antolakuntza eta pedagogi koherentzia bermatzeko.”

Ondorioz, gure iritziz, eskola egutegia ezartzeko gaitasuna ez da beraz Hezkuntzaren Lege Orokorraren 6.5 artikuluan ezarritako curriculumaz ezartzeko eskuduntzen garapena nire ustez. Aldiz, Euskadiko Autonomia Estatuaren 16. artikuluan ezarritako eskuduntzaren eta abenduaren 21eko 17/2023, Hezkuntzaren Legearen 36.2 artikuluan aurreikusitako eskumenen gauzatze zuzena litzateke, beti ere bat badator honako araudi honekin: ekainaren 30eko, Jaurlaritzaren 7/1981 legearekin; ekainaren 23ko lehendakariaren 18/2024 dekretuaren 12. artikuluekin; eta azaroaren 19ko 381/2024 Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua; bai eta betiere Hezkuntza Legeak ezartzen duen ikastetxeen autonomiarekin bat badator ere, noski.

Bestalde, ikastetxeek duten autonomia aztertzerakoan ezinbestean Hezkuntzaren Lege Organikoaren 120. artikulua aztertu beharra dago. Honako hau xedatzen du artikulua horrek:

Autonomía de los centros

Artículo 120. Disposiciones generales.

- 1. Los centros dispondrán de autonomía pedagógica, de organización y de gestión en el marco de la legislación vigente y en los términos recogidos en la presente Ley y en las normas que la desarrollen.*
- 2. Los centros docentes dispondrán de autonomía para elaborar, aprobar y ejecutar un proyecto educativo y un proyecto de gestión, así como las normas de organización y funcionamiento del centro.*
- 3. Las Administraciones educativas favorecerán la autonomía de los centros de forma que sus recursos económicos, materiales y humanos puedan dar respuesta y viabilidad a los proyectos educativos y propuestas de organización que elaboren, una vez que sean convenientemente evaluados y valorados. Los centros sostenidos con fondos públicos deberán rendir cuentas de los resultados obtenidos.»*
- 4. Los centros, en el ejercicio de su autonomía, pueden adoptar experimentaciones, innovaciones pedagógicas, programas educativos, planes de trabajo, formas de organización, normas de **convivencia o ampliación del calendario escolar o del horario***

lectivo de ámbitos, áreas o materias, en los términos que establezcan las Administraciones educativas y dentro de las posibilidades que permita la normativa aplicable, incluida la laboral, sin que, en ningún caso, suponga discriminación de ningún tipo, ni se impongan aportaciones a las familias ni exigencias para las Administraciones educativas.

5. Cuando estas experimentaciones, planes de trabajo o formas de organización puedan afectar a la obtención de títulos académicos o profesionales, deberán ser autorizados expresamente por el Gobierno.

Ikastetxeen autonomia gauzatzeko tresnei buruz honela dio 17/2023 Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen 96 artikulua:

96. artikulua.– Kudeaketa-autonomiako tresnak ikastetxeetan.

1.– Ikastetxeen autonomia, funtsean, tresna hauen bidez babesten da:

a) Hezkuntza-proiektua. Besteak beste, curriculum-zehaztapenak jasoko ditu, eta hizkuntza-proiektua ere proiektu horretan sartuko da.

b) Kudeaketa-proiektua.

*c) **Ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia.***

2.– Halaber, ikastetxe bakoitzak kudeaketa-plan bat onartuko du urtero, programa-kontratuarekin bat datorrena, halakorik badago. Plan horretan, adierazle batzuk ezarriko dira, eta denbora-tarte horretan egin den kudeaketaren emaitza ere ebaluatuko da, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak egindako plan estrategikoaren arabera. Programa-kontratua, halakorik badago, jarraibide horietara egokitu beharko da hitzartutako aldietan

Hezkuntzaren Lege Organikoaren bostgarren xedapen gehigarriak bere aldetik honela dio, eskola egutegiaren inguruan

*El calendario escolar, que fijarán **anualmente las Administraciones educativas**, comprenderá un mínimo de 175 días lectivos para las enseñanzas obligatorias.*

Hau da, Lege Orokorrak eta EAEko Legeek ikastetxeei aurreikusten dizkiete haien funtzionamendua ezartzeko gaitasuna, baita egutegiari dagokienez ere, betiere hezkuntza administrazioak ezarritako baldintzetan. Zuzenean esaten ez duen arren, ulertu liteke, beraz, hezkuntza administrazioari dagokiola gutxieneko baldintza horiek ezartzea egutegiaren inguruan. Gutxieneko baldintza horiek ezartzea beraz litzateke, aztertzen ari garen agindu horren xedea. Gutxieneko baldintzak ezartzeko orduan ere, legeak irizpide zehatz bat ezartzen du gutxienez 175 irakastegunekoa izango

dela ikasturtea, eta ondoren berau ezartzeko autonomia aurreikusten du, ideia honi jarraituz, aztertzen ari garen agindua gure ustez, antolaketa erregelamendu soila da, legeak ezarritako mugen barnean, arau orokor bat ezarri beharrean, antolakuntzarako gutxieneko baldintza bat ezartzen duena, ondoren behar izanaren arabera, honelako ikaskuntzak jorratzen dituzten ikastetxeek euren autonomiaren arabera egutegia zabaltzeko aukera soila ezartzen duena.

Antolaketa erregelamendu hau emateko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen 36.2 artikuluan oinarritzen dela deritzogu, eta beraz Hezkuntza sailburuak badu eskumen nahikoa antolaketa erregelamendu hau emateko.

IV.- ARAUAREN EDUKIA ETA LEGEZKOTASUN AZTERKETA.

Arauaren edukiari dagokionez bat gatoz saileko txosten juridikoak esandakoarekin, eta beraz errepikatzeak saihesteko saileko txostena gure egiten dugu edukiaren inguruko azterketan, eta ez dugu edukiaren inguruko ohartarazpen berezirik, baina saileko txostenak ere aztertzen duen moduan aztertzen ari garen aginduak langile publikoen eskubideei zuzenean eragiten dienez eragin hori modu zehaztean aztertu behar da.

V.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BEHARRA.

Gai honetan ere saileko txosten juridikoak esandakoaren bat gatoz, eta uste dugu erregelamendu hau onartu aurretik, negoziazio kolektiboaren bidez mahai sektorialean berariaz jorratu eta negoziatu beharreko gaia dela, hala ezartzen baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37 artikulua, eta ez bakarrik hori, gogoratu behar da, ekainaren 30eko 6/2022 legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 7.1.d) artikuluan erregelamenduaren deuseztasun kausatzat hartzen duela, negoziazio kolektiboaren inguruko beharrianak kontuan ez hartzea xedapenak egiteko prozeduran.

Negoizazio kolektiboren beharrian hau ezin da nahastu informazio eskubidearekin, hau da, ez da nahikoa alorreko mahaian administrazioak bere helburuen berri ematearekin, benetako negoziazio bat egon behar da, horrek ez du esan nahi nahitaez akordio bat egon behar dela. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak Administrazio Publikoko langileen lan-baldintzak zehazteko negoziazio kolektiborako eskubidea arautzen du. Funtzionarioei

dagokienez, aukera hori legezkotasunaren, aurrekontu-estalduraren, derrigortasunaren, negoziatzeko fede onaren, publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioei lotuta dago (EPOE, 33. art.). Hala, berariaz aitortzen da ezarritako negoziazio-mahaiek – bakoitzak bere esparruan eta administrazio publiko bakoitzaren eskumenei dagokienez eta kasu bakoitzean legez dagokion irismenarekin – EPOEren 37.1.m) artikulua araber, negoziatorako hizpide izango dira beti Lan-egutegiari, ordutegiei, lanaldiei, oporrei, baimenei, mugikortasun funtzionala eta geografikoa, eta plangintzari buruzko irizpide orokorrak ezartzea.

Negoziatorako fede ona da jurisprudentziak, jurisprudentziak administrazioari negoziatio beharra duten gaiak arautzerakoan eskatzen duena, eta fede ona dagoela jo da, alderdi negoziatzaileen jarduketan egiaztatu denean alderdi negoziatzaile bakoitzak bere jarrera adierazi duela eta negoziatu nahi zen gaiari buruz kontrako alderdiak zuen jarreraren berri izan duela. Era berean jurisprudentziaren araber, uste du fede ona dagoela, negoziatzaileen jardueretan, gaien inguruko ezkututzerik edo distortsiorik egon ez denean. Akordio eza beraz, ezin da negoziatio ezarekin parekatu, eta ezin da esan informazio hutsa denik informatutako alderdiak bere kontra proposamena egin ahal izan zuenean. Hau da adibidez, Auzitegi Nazionalako, Administrazio-Auzietarako salak 2023ko irailaren 9an emandako sententzian dioena. Honela dio hitzez-hitzez sententzia honen laugarren zuzenbidezko oinarriak:

“De esta actuación seguida por las partes en la Mesa de Negociación, examinada bajo el prisma de la estricta sujeción a las normas jurídicas que la rigen, que se han transcrito anteriormente, y que constituye el ámbito jurídico en el que actúa la revisión jurisdiccional ahora pretendida ante este Tribunal, con abstracción de cualquier otra valoración desde cualquier otro parámetro, se desprende el cumplimiento de los principios que presiden la negociación colectiva, según el sentir de la Exposición de Motivos del Estatuto Básico del Empleado Público (EDL 2007/17612), al decir “El Estatuto recalca los principios de legalidad, cobertura presupuestaria, obligatoriedad de la negociación, buena fe, publicidad y transparencia que han de presidir la negociación”, y que proclama el artículo 33.1, de legalidad, cobertura presupuestaria, obligatoriedad, buena fe negocial, publicidad y transparencia. Pues en el supuesto de autos el tema objeto de controversia esta en el ámbito de las materias objeto de negociación colectiva, por ello con sujeción a la norma legal, la concurrencia de la buena fe negocial, dimana de la propia actuación de las partes negociadoras, cada una de ellas expresó su postura y tuvo conocimiento de la postura que

sobre la materia a negociar pretendía la contraria, y no esta acreditado ocultamiento o distorsión alguna de los temas a tratar o en la actuación de los negociadores. Sin que la falta de acuerdo o convenio, pueda ser elevada a la categoría de falta de negociación, ni pueda hablarse de mera información cuando la parte informada, pudo efectuar su contrapropuesta, sin perjuicio que la misma no fuera aceptada.”

Hau guztia esanda eta espedientean dagoen informazioa aztertuta,

VI.- ONDORIOA

Prozedurari buruz egindako ohartarazpenak kontuan hartu ondoren, oro har indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat datorrela iritzita, aldeko txostena ematen zaio aztertu den aginduaren edukiari.

Hauxe da nire txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut, Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.